

# Nafarkaria

• ostirala • 1997ko urriaren 17a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Usategien Eguna Etxalarren • Festa handia igandean .**

**Jokin Muñoz • Argitaratu berri duen nobelaz solasean.**

**Gure Aukerak: • TEN taldeak «Sekula guztirako bideak» antzeztuko du bihar.**

# INAE

bastidore  
arteko  
isileko  
lana

• LUIS AZANZA



# Etxalar • Usategietako egun handia ospatuko da igandean

Bortzirietatik hurbilduko da jendea usoak nola ehizatzen diren ikustera

**Urria da hilabeterik garrantzitsuena ehiztarientzat. Hainbat ehiztarik lanean oporrak hartzen dituzte usategietara igotzeko, goizeko lehen orduetatik ehizan ibiltzera.**



Hego haizea sartuz gero usoak ehizatzeo aukera hobea izango da Etxalarren, eta ikuskizunak asko irabaziko du. • EDURNE KOCH

**E**ZAGUNAK ETA OSPE HANDIKOAK dira Etxalarako usategiak, batez ere, ehizateko modua berezia delako. Aldian-aldian baino ez dira aditzen tiro hotsak Etxalarako usategietan, sareak erabiltzen bíatira usoak ehizatzeo. Bandoak usategietara iristen direnean, paletak botatzen dituzte ehiztariek, usoak beheitiago egin dezaten hegan. Gisa horretan, usoak Lizarrietako lepoan sartzen dira, eta garaiera handiko sareekin usoak preso gelditzen dira, harrapaturik. Ehiztariek uso talde ederra biltzen dute, eta lepoa bihurtuz hiltzen dituzte.

Hainbat bisitari biltzen dira Etxalarako ehiza modu hau ikustera, eta urriko hirugarren igandean, bereziki, Bortzirietako herri gutzietatik hurbiltzen da jendea. Mendiz joaten dira asko eta asko. Usategien inguruan dauden ostuetan hamaiketako egin, usategiak bisitatu, eta inguruetatik buelta bat eman ohi dute. Ehiztarientzat ere egun handia izaten da, eta egun horretan joaten den jendearen aurrean erakustaldiak

egiten dituzte, hori bai, eguraldiak lagunduz gero. Hego haizea sartuz gero, usoak ehizatzen ikusi ahal izango da.

Usadio zaharrekoa da besta egun hori Etxalarren. Hala ere, herriko kultur talde batek (ikasitola ere sortu zuenak) bultzatuta hartu zuen bestak egun duen itxura. Garai batean, Pilarika ondoko igandean ere izan zen ospakizunik ehiztarien artean; urriko bigarren eta hirugarren igandean izaten ziren besta egunak. Egundak, besta hirugarren igandea baino ez da mantetzen.

Irailean egiten da urrian hasten den ehiza denboraldiko postuen enkantea. Iraillaren 13an egin zen aurtengoa, eta aurreko urteetan baino puska diru guttiago bildu zen. Denetara, udalak 3.690.000 pezeta (147.800 libera inguru) bildu

zituen enkantean. Postu garestienak ez dute aurreko uteetako ekarpenik izan. Iaz garestienagatik 700.000 pezeta ordaindu ziren, eta aurten postu beragatik 272.000 pezeta ordaindu dira. 13. postuagatik, hala ere, 514.000 pezeta ordaindu ziren. Enkantean postuak eskuratu zituztenen artean, irundarrak izan ziren nagusi, 12 postu eurentzat izan baitziren. Gainerako 10k, Olague, Bera, Etxalar, Donostia, Hondarribia eta Baionako jendeak eraman zituen.

**Aurten kontzerturik ez** Etxalarako gazteak hainbat urtean kontzertua antolatu izan dute usategietako igande bezperan. Sona handia zuen kontzertuak, eta jende anitz bildu ohi zen. Bertatik igaroak ziren Su ta gar, Reincidentes edo Zarama

bezelako talde handiak. Altxata kultur elkarteko gazteek antolatu ohi zuten. Aurten, hala ere, ez dute deus antolatu, eta kultur ekintzak idande arratsaldera mugatuko dira. Ez egitearen arazoia, ekonomikoa baino gehiago, antolatzeo jende nahikoa ez elkartu izana izan da, nonbait. Igandean, beraz, goizean jendea usategietan ibili ondotik, arratsalde partean, herrira jaitsiko da. Arratsaldeko 5:00etan Auskalko taldeko antzerkia eta zangoluzeko karriz karriz ibiliko dira giroa alaitzen. Ordu eta erdi iraungo du saioak, eta ondotik, 6:30etan, hasiko da plazan Gozategi taldearekin dantzaldia, eta 9:30ak arte iraungo du. Ehizak Etxalarren duen garrantziaren lekuko izaten da besta egun hori.

→ Jon Abril

## Bortziriak

•  
Bidasoako bertso paper lehiaketa martxan da

GURE TXOKOA Elkartek eta Bortzirietako Bertso Eskolak antolatu dute XI. Bidasoako Bertso Paper lehiaketa.

Orain arte, elkarte bakoitzak bere sariketa prestatzen zuen, udazken aldean biak ere, eta horregatik, biak bat egitea erabaki dute.

Deialdian lau maila izanen dira parte hartu nahi dutenentzat. A maila 10 urte artekoentzat egokituta da eta bi kopla idatzi beharko dituzte guttienez. B mailan aldiz, 10-14 urte artekoentzat dena, 4 kopla edo bi kopla idatzi beharko dituzte guttienez.

Bi maila horietan, lehendabiziko hirurentzat oroigarriak izanen dira. Azkenik, C mailan 15 eta 17 urte artekoek parte hartu ahal izanen dute. Horiek seina bertso idatzi beharko dituzte eta saria sailkapenean aurreko hirurak eramanen dute. 20.000, 12.000 eta 5.000 pezeta-ko sariak emanen dira eta orioigarriak.


Partaideen izena, helbidea eta telefonoa sobre batean sartuko da eta azaroaren 7a baino lehen bidaliko da Gure Txokoa elkartera. Eztegarra ibilbidea, 31780 Bera.

Bidasoako Bertso Paper Lehiaketako sariak azaroaren 15ean Beran gazteeekin eginen den bertso jaialdian banatuko ditu Gure Txokoa elkarteak.

→ Jon Abril

## denbora pasa

XAMAR



**D**onapaleu aldean «Beti aintzina!» erra-ten zaio adixkideari, alegia eta ez dadin gibelari so egon, joanak joan. Halere liburu zaharren azokan bitxikerien bat atzematen duzularik, iraganari soaldi bat ematea ez da gaizki heldu.

Konparazione batera honako pitxiak 1929ko turismo gida batean leitu daitezke, Nafarroa bisitatzeko nahikeria piztu beharrez:

«Su idioma ancestral...» «...su arquitectura genuinamente euskara...» «Su zona montañosa o Pirenaica, cuna y relicario del oasis vasco, tan estudiado y admirado por Humboldt, Luciano Bonaparte, los iberistas, y en general por los

## Beti aintzina!

hombres de ciencia, conserva puramente las esencias de la raza euskara más que las otras regiones vascongadas de España, que no han podido guardar, como Navarra, su tipismo, por su inmediata salida al mar y por su casi constante estado de anexión, durante el transcurso de la historia, a pueblos no vascongados...» «En el siglo VIII y en las abruptas montañas de Euskalerria, tuvo su origen la monarquía navarra...»

Tokitan daude oraino gidak. Egundak gisa hontako liburu egileek izigarritzko lan gaitzak hartzen dituzte «vasco» elea ez aipatzeko.

Ez dute imini nor den delako gidaren egilea,

orai, aitor dezagun urren bi posibilitateetarik bat: Herrizalea zena edo lanerako alferra.

Pertsonalki bigarrenaren alde nago, lan handia behar baitu izan ele madarikatua bazterteza Nafarroaren ongi deskribatzeko. Beraz, kontuan hartuz funtzionarioa zela, nagieren alde dut apostu egiten. Zerengatik funtzionarioa? Gida ofiziala delakoz: «Editada... bajo el alto patrocinio de la Excma. Diputación Foral y Provincial de Navarra y el Excmo. Ayuntamiento de Pamplona».

Ez erran neri Herrizaleak izan zitezkeela beren iharduera ofizialean funtzionarioak, edota Diputazioa erakunde normala zela. Ez nuke sinistuko. Navarra siempre p'álante.

Lizarra

Musikaren bestelako historiaren erakusketa

GAUR ETA BIHAR 'MUSIKAREN bestelako historia' izenburua daraman erakusteta ikusi ahak izanen du Lizarrako Fray Diego Kultur Etxean. Bertan, mendeetan zehar emakumeak musikan izan duen bete-beharra hartzen da aintzatzat. Izan ere, inoiz idatzi ez den historiaren eramalea izan baita kasu gehienetan emakumea. Erakusketa Lizarrako Udaletxeko Emakumetzako Zerbitzuak eta Kultur Sailak antolatu dute, Lizarrako Emakumeen Asanblada eta Euskadiko Kutxaren laguntzarekin. Erakusketaren ardura, berriz, Emakumeen Musikaren Elkartearen eskutik dator. Elkarteak 1985ean sortu zen iraganaldian emakumeek izan duten papera azpimarratzeko eta luzaroan musika arloan ukatu zaien bermatzeko.

Maria Loizagak, Emakumeen Musikaren Elkartearen kideak, aipatzen duenez erakusketak emakumeek musikaren arloan izan duten lekua aztertzen du, mendez-mendeko ikerketa eginez. Zentzu horretan, eta Loizaga beraren hitzetan «andraren historiaren arazoa historia bera ez izatean baitatza, hots, emakumea, kasu gehienetan, inoiz idatzi ez den historiaren eramalean izatean».

Erakusketaren inguruko ekitaldiak joan den larunbatean hasi ziren.

→ Kristina Berasain

# Araitz-Betelu • Musika eskola Indianoetxean kokatuko da

Hainbat gora-beheraren ondotik, urte batez hor ikasiko dute bailarako ikasleek

**A**RALAR UDAL MUSIKA ESKOLAK Goizueta, Leitza, Ultzama, Basaburua, Larraun, Lekunberrri, Basaburua, Araitz eta Beteluko ikasleak biltzen ditu. Hori horrela izanik, bailara bakoitzean, lekuan lekuko, egoitza bat badu Aralar Udal Musika Eskolak, ikasleak bertan aritu ahal izateko.

Araitz-Betelun, duela gutxi arte, Indianoetxean izaten ziren musika klaseak. Indianoetxea, lehen, zonaldeko eskola zen, baina ikastetxe berria egitearekin, kultur taldeen egoitza bezela erabiltzea erabaki zen: dantzariak, antzerki taldea, euskaltegia... eta baita musika eskola ere. Hantxe aritu da joan den urte guztian, behintzat. Baina oraingoan, ikasturte berria gainean izan arren, ez zegoen oso argi non bildu ahal izango ziren ikasleak.

Lehenengo ikasturtearen amaieran sortutako liskarrek orain izan dute jarraipena: Beteluko udala eta musika eskola ez datoz bat lokalak nork garbitu behar dituen erabakitzerakoan. Udalaren ustez, erabiltzen dituenak garbitu behar ditu lokalak, eta eskolari ikasleen gurasoen artean garbi zitekeela proposatu zion. Guraso batzuek, ordea, ez zuten begi onez ikusi erabaki hori.

Aralar Udal Musika Eskolak, berriz, garbiketa udalen ardura dela uste du. Bertako zuzendariak, Jose Javier Irigoienek dioenez, «gure junta orokorrean, egoitzaren mobiliarioa eta mantentzen da udalarekin kontua zela erabaki genuen. Hortik sortu



Musika Eskolaren egoitzak buruhauste frango eragin ditu. ● LUIS AZANZA

ziren bi arazo nagusiak: pianoaren erosketak eta gelen garbiketa». Lehengo urterarte, ordurarte irakaslea izandako Maria Angeles Urrizalkiren pianoa erabiltzen zen klaseak emateko. Baina irakasle hori erretiratu zenean, piano berri bat behar zen. Azkenean, udalak proposatutako egin zen: berak erdia jarri bazuen ere, beste diru erdia gurasoek jarri behar izan zuten.

Jose Javier Irigoienek ustez, «Beteluko udalak ez dio garrantzi gehigirik ematen musika eskolari. Beste udal guztietan ez digute inongo trabarik jartzen, baina Betelun bai, ez dutelako udal zerbitzutzat jotzen. Aisialdi edo dantzari taldeei baino diru gehiago eskaintzen digutela diote, eta horregatik ez dutela uste bestelako mesederik egin behar digutenik».

Arazoak konponbiderik ez zuela ikusirik, aurtengo ikasturtea hasterako, musika eskolak Araizko udalarengana jo zuen. «Araizkoak, bai, bere esku zuten guztia eskeini digu klaseak bertan eman ditzagun, nahiz eta gela egokirik ez izan», dio Irigoienek. Istilu hauen guztien ondorioz, ikasturtearen hasiera astebetetzat ateratu da, eta astelehen honetan bildu ziren ikasle guztiak, lehenengoz, Araizko udaletxean. Baina, nonbait, konponbide hau ez zen beteluzarren gustuko, eta, semeak Arribera joan ez daitezkeen, zenbait guraso prest agertu dira, aurtengo, lokalen garbiketaz arduratzeko. Horrela, berriro ere Indianoetxea bihurtu da Aralar Udal Musika Eskolaren egoitza.

→ Urko Aristi



## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

### Bertsolari gazteak plaza bila

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa abian denean, Nafarroako bertsolari gazteen kezka eta proiektuak ekarri ditu gogora **Ttipi-ttaparen** azken zenbakiak, udako azken asteburuan Etxalarren bertsolariok egin zuten bilera abiapuntutzat hartuz. «Txapelketa nabari da, nolabait, Nafarroan bertsolaritzak izan duen gaztetze prozesua. Denak ez dira larrosak, ordea. Saio gutti egiten dituzte gazteek txapelketatik kanpo eta bertsolari bezala trebatzeko arazoak dituzte. Nafarroako bertsolaritzaren barnean beraien papera aztertu eta egin beharreko lana zehaztu

nahian Etxalarren bildu dira. Bertso eskoletan arituak dira gazte gehienak, baina eskolarik onena plazan aritzea dela uste dute, patxadan, txapelketak ematen duen urduritasun eta sufrimendurik gabe. Baina hori zaila da gaur egun. Horretarako gazteekin zenbait saio antolatu nahi ditu Zortiko Titia elkarteak eta hori izan zen, hain xuxen, Etxalarko topaketen xedeetako bat».


Etxalarko bileran Xaltoa saria berriro egitea erabaki zuten Nafarroako bertsolari gazteek, aurtengoan lehen aldiz Iparraldeko ordezkariekin. Jorratutako

gaien artean, halaber, bertso eskolena izan zen garrantzitsuenetariko bat: «Berrikuntza mordoxka proposatu dira bertso eskoletan aritzeko, hitzekin jokoak eginez, eta abar, orain arte bertsolarita eman den modua erabat baztertu gabe, baina hasten diren gaztetxoendako errexago izateko moduan», aipatzen du hamabostekariko artikuluan Jon Abril bertsolari beratarrak. Bertso eskoletako ikasturtea, hain zuzen, laster hasiko da eta izena emateko epea zabalik da Bortzirriak, Goizueta, Malerreka eta Baztanen. Saran ere eskola zabaldu nahi dute.

Donesaturdiko oilarra lumatzen  
Juan Kruz Lakasta

### Miguel Angel de Aralar

Miguel Angel de Aralar du batailo izena, eta guztiek Mikel deitzen dute. Hogeita hamar urte ditu, eta txantrearra da. Hemezortzi urte zituela, ofizialki Padre Moret izena zuen eta denek Irubide deitzen zuten institutuan ikasten zuten. Lagunek frogatu behar zuela, izugarria zela esaten zioten, baina berak ez zuen batere argi. Egia esateko, ezer ez zuen argi. Ez zuen argi ikasi ala lan egin nahi zuen, gurasoen etxean bizi ala etxetik aldegin nahi zuen, abertzale-sozialista ala abertzale-anarkista zen...



Institutuko jai batean, kasik nahi gabe, frogatu zuen. Goizean goizetik hasi zen edaten, eta frogatu zuenean zertan ari zen ez zekien. Nolanahi ere, berehala ohartu zen lagunek arrazoiak zutelara, izugarria zela, ikaragarria zela, zoratzeko modukoa zela. Gorputzean barrena zoriontasun kilika nabaritu zuen. Biharamunean berriro frogatu nahi izan zuen, eta hurrengo egunean baita ere. Konturatu zenerako engantxatuta zegoen. Eskura izan ez zuenean konturatu zen engantxatuta zegoela. Ezin zuen lo egin, ezin zuen jan, ezin zuen deus egin. Berriz ez zela eroriko zin egin zion bere buruari.

Zertxobait osatu zenean, bere bizitza berregiten saiatu zen. Ikasketak utzi zituen, eta zerbitzari lanean hasi zen. Betiko lagunekin elkartu zen. Gurasoekin ongi moldatzen saiatu zen. Haatik, hori guztia eginda ere, ez zuen errailetan sentitzen zuen hutsune ilun, hotz, jasanezina betetzea lortu. Eta berriz erori zen. Ordea, ez zen lehen aldian bezala izan. Lasaitu egiten zuten, hutsunea nola edo hala estaltzen zion, baina ez zion lehen aldiko zoriontasun kilika sentiarazten. Harrezkeroztik hamaika aldiz erori da, lehen aldiko kilika horren bila, eta hamaika aldiz utzi du, lehen aldiko kilika hori ez zuelako aurkitzen. Mikelek ez du sekula heroinarik hartu, baina badu heroina, aspaldi Irubideko jai batean ezagutu zuena, egun non dagoen ez dakiena.

● Nafarroako Antzerki Eskola

# NAE: egiten duenaren onarpenaren bila

Ikasturtea hasi berria du Nafarroako Antzerki Eskolak eta ofiziala izatea eskatu du

**Nafarroa Antzerkia Eskolak ikasturtea hasi du. Aurreko urteetako dinamikari jarraituz, antzerki ikakestez landa hainbat ikastaro eta emanaldi antolatu ditu. Ilusio faltan ez badabilta ere, egiten duten lana onartua izan dadila eskatu dute eta, bide batez, eskola ofiziala izan dadila.**

**I**KASTURTEA HASI BERRIA DA IRUÑEKO ALDE ZAHARREKO San Agustín kalean dagoen Nafarroako Antzerki Eskolan (NAE). Garai batean Arrieta zinema izan zen hormek hartu dituzte nozbit aktore izateko itxaropenarekin eskolara etorri diren ikasleak, irakaslearen esanak entzuten. Bulegoan ere bada lana, eskolekin antolatutako ikastaroen egutegiak azken ukituak eman. Udazkeneko egitaraua gainean... badute zer egin. Baina gaur arte iristeko lan handia egin du eskolak. NAE sortu zela badira hamabi urte. Ordurarte TEN taldea (Nafarroako Antzerki Egonkorra) arduratzen zen eskolaz, eta bere beharra utzi egin zuen Gobernuak eskolaren aldeko apustu handiagoa egin zezan. TENek aurrekontu murriztuaren eta hartutako erabakia onerako izan zen. Administrazioak dirulaguntza gehiago eman zuelako. Laguntzak eskolari indar berria eman zion eta herrialdeko antzerki talde asanguratsuenek osatutako taldearekin lanean hasi zen Miguel Munarriren zuzendaritzapean.

Geroztik bide luzea egin du eskolak. Murrizten lekukoa Maite Pascualek hartu zuen eta egun hiru lagunek osatutako taldeak daroma ardura: Maite Pascual (zuzendari akademikoa); Javier Perez Eguaras (zuzendaritza tekniko eta egitarauak) eta Mari Jose Sagües (administrazio zuzendari).

Irakasle finkoak hamabi dira baina egun eskolaren lana hasi zenetik hiru urteko in-

**María Alvarez**


«Zu zinen guztiaren egile eta erantzule. Hasieran dena zintzilik zegoen baina orain errotua dago eta badu indarra»



terpretazio ikasketetara mugatzen ez denez, hogeita hamar bat lagun ari dira lanean. Nafarroako Gobernuarekin duen hitzarmenaren arabera 31 milioi pezeta (1.200.000 libera) jasotzen du eta ikasturterako duen 55 milioi pezetakoa (2.200.000 libera) txartel-leihatilan, matrikuletan eta beste erakunde batzuekin dituen hitzarmen eta aktibitateak direla medio osatzen du.

Aurreko urteetan bezala arte dramatikoki ikasketak mantentzen dira hiru urteko interpretazio espezialitatearekin. Aurten talde bakarra dute lehenengo kurtsuon eta jende ugari gelditu da kanpoan. Kurtsu horietan 54 ikasle daude hiru mailatan banatuak eta ikasleek interpretazioa, ahots eta gorputz teknikak, artearen komedia... ikasten dute. Behin hirugarren mailara iritsita tailerrek dute garrantzia eta ikaslea, batez ere, interpretazioan trebatuko da kanpotik ekarritako irakasleekin. Dena den, interpretazio ikasketaz landa eskaintza zabaldu du eskolak, prestatuntzan ez ezik, ikuskizunetan ere bai.

Euskaraz eta gaztelaniaz joko dramatikoa irakasten da haurrentzako, eta antzerki teknikak gazteentzat zein helduentzat. Joan den urtean 2.000 ikasle baino gehiagok egin zuten eskolak antolatutako ikastaroren bat eta aurten kopuru hori 3.000era hurbilduko da. Baina eskolak ez du bakarrik prestatuntzan lan egiten, ikuskizun ugari ere antolatzen ditu. Beste batzuen artean, udazkeneko



antzerki egitarau oparoa antolatu du Euskal Herriko hamar talderekin.

**Ofizializazioa onartu**

Herrialdean errotua dagoen arren eta aurrera doan arren, oraindik egiteko asko dagoela badakite NAEko arduradunek. «Aldarrikapen argiena ikasketak ofizialki onartzea dugu. LOGSEak (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea) eskatzen duenari egokitzen gara. Badago arazoren bat egoitzarekin baina legeak esaten dituen ikasgelak ditugu eta beste eskola askok ez

**Mari Egues**

«Hiru urte dago ofizialaren alde borrokan. PSOE eta UPN pasatu dugu eta ez dugu erabaki»

bezala eszenatokia ere badugu» azaldu du Mari Jose Sagües administrazio zuzendariak. Ez da hori Administrazioari eskatzen dioten gauza bakarra. Eskolak ofizial izan nahi baitu. «Egiten dugun lana onartzea garrantzitsua da. Jakin badakigu zuzendari batek ez duela kontratatzen norbait titulua duelako, pertsonaia egoki interpretatzen duelako baizik» gaineratu du. Dena den, hori ez da ofizializazioa eskatzeko arrazoi bakarra. Egund Hezkuntzak antzerkigintza eta joko dramatikoa uztartu nahi ditu irakaskuntzan eta horretarako ez dago profesionalik. «Titulazioa eskatzen badute kanpotik ekarri beharko dira irakasleak, edo bestela hemen dauden literatura, hizkuntza edo soinketako irakasleak birziklatu. Ez gaude horren aurka baina antzerkigintzan espezialistak hemen egiten dira». Ofizialak ez izateak beste arazorik ere sortzen die, ikasleek ezin dutelako ikasketak egiteko dirulaguntzarik eskatu.

Hegoaldean beste inon ez dago eskola ofizialik eta bat beharrezkoa litzatekeela diote. Arduradunen iritziz, afera borondate politikorik faltan oinarritzen da. «Hamabi urte daramagu ofizialtasunaren aldeko borrokan, PSOE eta UPN alderdiak pasatu ditugu eta ez dugu deus lortu». Maiatzean bildu ziren Javier Markotegirekin, kontsultatu egin behar zuela esan zien eta geroztik ez dute haren berri.

Bestalde, Saide enpresarekin alogera kontratu dute eta egoitza aldatzeko asko hitz egiten bada ere, Alberto Zozai Saideko arduradunak horrelako asmorik ez dagoela ziurtatu du. Dena den, eskola txikia gelditu zaie eta, egokitze lanak egin ondok, San Francisco eskolan ikasgela batzuk erabiltzen dituzte.

**Etorkizuna:**

**orain arte egindakoa egiten jarraitu** Ideiak bor-bor eta ilusioa soberan dute eskolan. Etorkizuna gogoz ikusten dute «ideiak ez zaizkigu falta, hala ere, orain arte egiten duguna egiten jarraitu nahi dugu. Martxan dagoenak oso ongi funtzionatzen du eta ez dugu ardurua handiagorik hartuko ez garelako iristen». Gero eta gehiago dira, Euskal Autonomi Elkartetik gero eta jende gehiago dator antzerkia ikastera eta ikastarorak eta bestelako antzerki ikuskizunak gero eta arrakasta gehiago dute. Hori dela eta, jende eta toki gehiago behar badituzte ere, oraindik ez dute handitzeko asmorik. «Aretoiari probetxu gehiago ateratzen zaio eta ikastaroko ez dira gehitzen ez dagoelako tokirik ez jenderik. Sortua dagoen azpiegitura hobetu nahi genuke». Eguesek nabarmendu duenez, erakuntzak aukera asko ditu eta konponketak eginez gero, baliabide askoz gehiago litzuke. Baina arazoa, beti bezala, dirua da, inbertsio handia behar delako. «Behin baino gehiagotan hitz egin dugu Administrazioarekin baina aurrekontu handia beharko litzateke eta seguruenik lokala itxi egin beharko litzateke. Azpiegitura hankamotz gelditzen da baina gutxinaka hobetzen goaz».

Arazoak arazo, eskola aurrera doa eta urteotan egin duten isileko lanak fruituak baditu. «Ez dugu atzera begiratu, lanean gaude eta hemendik atera diren ikasleak lanean daude eta horrek zerean handia du. Hasiera areto nagusira inor gutxi etortzen zen antzezlanak ikustera baina orain dituen 300 lekuak bete egiten dira», gaineratu du.

→ Irene Arrizurieta

**Emilia Ekai**

NAEko irakaslea eta ikasle ohia

## «Prestakuntza zabaldu eskaintzen du»

**E**MILIA EKAI LIZARRARAK NAFARROAKO ANTZERKI Eskolan Interpretazioa, Zuzendaritza eta Musika irakasten ditu. Antzerkigintzan Lizarrako Kilkarra taldean hasi zen. Han sei urte igaro eta gero, lanerako aitzakiarekin Iruñera etorri eta NAEn ikasten hasi zen 1990ean. Eskolan interpretazio hiru urteak egin ondok, oholtzarako bidea hartu beharrean Bartzelonara joan zen Zuzendaritza eta Dramagintza ikastera.

Egin dituen ikasketek antzerkigintzaz ematen dioten ikuspegi zabalak eta eskarmentua erakusten salatzen da. Taularen bestaldean ikasketek eta erakusteko asko dagoela uste du, aktore izateko aukera ez ezik, zuzendari eta adaptatzaile lana ere hautatu baitezake.

**■ Nolakoak izan ziren eskolan emandako urteak?**

Nahiko sakona izan zen. Eskolan izan zen interpretazio lana seriooki planteatu nuen lehenengo aldia. Kilkarran oso gustura nengoen baina han emateko nuen guztia hustu nuen eta NAEn gauzak beste ikuspegi batetik planteatzen hasi nintzen. Lan serioagoa egin nahi nuen gero antzerkigintzan profesionalki aritzeko.

**■ Zer erakutsi dizu?**

Asko. Eskaintzen duen prestakuntza oso zabal da, titulu ofizialik ematen ez duen arren aktore heziketa zabaldu eskaintzen du. Niri, batez ere, lan egiteko gogo handia kutsatu zidan eta antzerkigintzan aritzeko aukera ikusten hasi nintzen.

**■ Asko aldatu da azken urteotan?**

Orduan baino errotuagoa ikusten dut asko zabaldu delako, orain beste esparru batzuetan ere aritzen baita. Egund ez da ikasle ofizialen hiru urteko ematera mugatzen, helduentzat zein haurrentzat hainbat klase eskaintzen ditu. Antzerki ikasketek dagokien kanpoko irakasle gehiago ekartzen dira ikasleek ikuspuntu gehiago emateko eta formakuntza zabalagoa. Asko aurreratu du.

**■ Aktore izatetik ikasle izatera emandako jauzia zaila izan da?**

Aktore izatetik irakasle izatera egin dudana saltoa mailakatu izan da eta ez da bat-batekoa. Lau urtetan zuzendaritza ikasten aritu



**Emilia Ekai**

«Eskolan lan egiteko gogo handia kutsatu zidan eta antzerkigintzan aritzeko aukera ikusi nuen»

nintzen eta hesiaren beste aldean kokatzeko aukera izan nuen. Hau da, antzerkia aktorearen ikuspegitik ez ezik, zuzendariaren ikuspegitik ikusteko aukera, eta horrek antz handia du irakaslearenarekin.

**■ Irakaskuntza utzi eta taulara itzultzea pentsatu duzu?**

Antzerkigintzan gehien maite dudana interpretazioa da baina irakaskuntzarekin hasi besterik ez naiz egin, eta, oraingoz, hori dudana aukerak aztertzen ari naiz. Eskarmentua hartzeko balio didala uste dut; zeure iritzia ongi errotu behar dituzu gero erakusteko eta horrek asko balo du.

**■ Eta zuzentzea eta idaztea?**

Joan den urtean Pasadas las cuatro taldea zuzendu nuen baina idazten ez dut ikusten neure burua. Orain irakaskuntzan finkatu nahi dut eta gero ikusiko dut zer egin. Oso gustura nago hemen lanean.

## Maria Alvarez: «Oinarri sendoa eskolan hartu nuen»

Maria Alvarez hogeita bat urte zituela Falcestik Iruñera hurbildu zen antzerkilaritza ikastera 1985ean. Gaztea baina beraz zen beste edonor interpretatzeko prest eta lan egiteko gogoz gainezka etorri zen. Eskolatik atera zen lehenengo promozio kideetako bat da. Egund Madrilen bizi da eta Espainiako Aktoreen Elkartearen errepartitoko saria jaso zuen joan den urtean. Oroitzapen onak ditu hasierako urteez.

Hasiera batean TEN taldean egon zen (Nafarroako Antzerki

Egonkorra) eskola oraindik eratu gabeko zegoelako. Mariaren helburua Madril zen eta eskola helmuga hori lortzeko bidea. «Lehenengo promozioa ginenez eskolaren erakuntza eta formakuntza biak batera egin genituelako oraitzapena dut. Egund, errotua dago baina gu joan ginenean ez argirik ez bestelakorik ez zen. Hala ere ilusioa ez zitzaigun falta eta praktika asko egin genituen, gogoratu du.

Dena den, aktore prestakuntzarekin muntaiak eta bestelako

antolakuntza lanak uztertzea eta egitea nekagarria izan zen arren, ikastea proposa bilakatu zitzaion. «Zu zinen guztiaren egile eta erantzule. Onartzen dut nire oinarri sendoak hor hartu nituela. William Lytonen lan metodoa erabiltzen dute eta Madrilerako bide eginarekin etorri nintzen».

Denboran eta esperentzian aurrera egiteak ematen duen segurtasunarekin eskolak etorkizun handia duela dio. «Momentu onean dagoela uste dut. Oinarri sendoa sortzen ari da eta ikaste-

txetan gero eta gehiago ari da lanean. Hasieran dena oso zintzilik zegoen baina orain badu indarra, ni sartu zenetik gaur arte benbora asko iragan da eta ikasketak zabaldu eta hobetu egin ditu. Era berean, ikusleari gero eta antzezlan gehiago eskaintzen dizkio eta, zentzu horretan, ikuslearen formakuntzan ere asko egiten du».

Orain Christopher Duranen *Aquí necesitamos desesperadamente una terapia antzezlan* taularantzen dabil Teresa Merinoren tal-

dearekin eta ez du Iruñera itzultzea pentsatu.

Hala ere, ez du aukera baztertzeko. «Zerbait interesgarria eskaintzen badidate hurbilduko naiz, baina nire aukera hementi da eta profesionalki gauza gehiago ditut hemen. Ni pausoz pauso eta egunez egun bizi naiz, eta ez dut gehiegi etorkizuneari pentsatzen. Gustatzen zaidana egiten dudalako pribilegiatua sentitzen naiz. Niretzat antzerkigintza lana baino gehiago plazerra da».

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Jean Ithurri Dolhagarai

Gure elekatze ugarien batzeko hasierako saio elkorretan plazaratu ziren proposamenak oro ez ditugu ahantz bidean



**E**uskara batua dugu, dudamudarik gabe, gure mintzo aberats guzien giltz bakhoitza -Egiategi filosofo zuberotarrari garraizkiola-, eta orainik orain zein gerora dituzkeen gabeziak oro gabezi, leher edo zaparta, kosta ala kosta, aspaldidanik herri honek heldu beharreko aferari, barrastabarrasta akaso ere, bilatu konponketa. Geroagoko, baita gaurko ere, euskaldunon eskutan badago gure hizkuntza zaharra modernitatean garatzeko beharrezko duen eraberritze zotukagarria. Eta euskaldun gutxiengoko, Euskal Herri bakarrean, euskara bat amets badugun arren, gure elekatze ugarien batzeko hasierako saio elkorretan plazaratu ziren proposamenak oro ez ditugu ahantz bidean, eta zinez baztertezina zaizkigu Krutwigek lapurtera klasikoaren aldeko formulatutakoak. Berriz, euskal literatura klasikoak erabili izan duen Lapurdiko euskararen formalizazioa Ithurrik eskeini zigun bere gramatikari, Krutwig-ek Lafitteri omenaldian eta Luhosokoaren gramatikaz ari zela baieztatuaren araberrakoa: «Baldin Ithurryren Grammatikêa' orain arte dadukagun gramatikê normaltzaile onena dela erran ba diteke, Lafitteren Grammatikêa euskarari buruz orain-arte iratzi diren gramatikê philologiko onena dela erran diteke. Lafitteren grammatikêak' bere baitan philologiko valio hura edukiaz gainera, Ithurryren Grammatikêaren bidez euskal literatur tradizionean zeintzu forma grammatikal' onenak izan diren ikasi nahi duenearentzat nahi-eta-ez komplement bat da, zeren-eta Ithurryren Grammatikêan syntaxiari buruzko parthe osoa ez bait dago, Ithurry bere Grammatikêa irazten ari zela hil zela-kotz».




Jean Ithurri Dolhagarai Larresoroko Intza-beherean sortu zen 1845.eko urriaren 19an. Etxetik hurbil zuen apezgaiategi txipian ikasi ostean, Baionan apeztu zen 1871.eko ekainaren 3an eta handik urterdi batetara Kanbón ihardunen zuen apez. 1880.eko uztailaren 17an erretor oso joan zitzaigun Arüera, eta Zuberoak eskeini abaro lasaian bereziki ekin zion euskararen ikerkuntza lanari. 1891.eko irailean, ostera, Landerretxe Sarako erreto-raren laguntzeko agindua jaso zuen, eta 1892.eko apirilaren 29tik, Landerretxe zaharra itzali zenez geroztik alegia, Sarako eliza bere gain hartzeko aukera izan bazuen arren, ezin izan zion eginkizun berriari luzaro eutsi, 1896.eko ekainaren 20an hil baitzitzagun gazte eta moldetegirik oraino orbaindu barik. Jean Hiriart-Urruti Althegei izan zen Ithurrik largatu zirriborroen atontzeko nahiz argitaratzeko ardura bere gain hartu zuena. *Eskualduna* argitalpenean hasi zen azaltzen, aldizka, 1894.eko abuztuaren 3tik, 1907.eko ekainaren 21era bitarte luzean, osotara 26 emanaldi, eta Daranatzek ziotsanez: «Ainsi donc il aura fallu un quart de siècle pour l'impression de

cette grammaire». Liburu gisa, *Grammaire basque dialecte labourdin Baionako Lamaignère baitan agertu zen, eta azalean 1895.eko data daraman arren, akabantza orrian «achevé d'imprimer le 20 février 1920 sur les presses de la maison Foltzer». Hil ostean agerturiko bigarren lan bat ere karrikaratu zuten A. Foltzer etxekoek 1920.ean, hauxe da, *Napoleon Bonaparteren pastorala*. Grammatikan bezala, honetan ere, Daranatz ezpeletarrak eginiko atarikoa dugu non Zuberoako pastualak zertan diren, azaletik bada ere, zehazten zaigun. Litekeena. Ithurrik Petharrako hirian higatu egonaldia luzangan lan honen borobildu izana. Edozein modutan ere, ideia ez dateke jatorrizkoa, bada, alde aurretik, hiru lan antzekoak agertu baitziren Zuberoatik hurbilekotan, Zuberoan bertan ez zenean ere, 1835.ean Atharratzeko J.P. Saffores batek *Napoleon* lana ondu zuen. Urte bertsuetan ere Nabarrenkoze aldeko olerkari batek *Bonaparte, campagne d'Italia (1796-1797)* tajatu zuen, eta Barétous haraneko beste bertsogile batek *Bonaparte campagne d'Italie (1800)* atera zuen. Ez dakigu seguru Ithurrik lapurteraz ondu pastoral hau taularatu zutenentz, halarik ere, kontrakoak pentsatzeko arrazoirik ez duguno, jokatutzat emanen dugu behinik behin: «Napoleon Bonapart da gure sujeta / Haren parerikan nihoiz izan ez da / Hastean bera duzue entzunen erraiten / Lehen urtheak nola iragan dituen / Gero dutenean errege hautatu / Nola Aita Sanduak duen kontsekratu / Haren armada dute orduan garhaitzen / Eta bera presonier Elberat igortzen / Ikhusiko duzue isla hartan hiltzen / Eta munduari etsenplua emaiten».*

etorri ahalean

Patziku Perurena



Zaldalea eta ogalea

**O**RAINDIK GOGOAN dut, nola esaten zuten Goizuetan, astoa, mandoa, mandokoa, behorra, zaldia edo beste edozein abere lurrean iraulka hasten zenean: «hara! zaldaleak irabazten hasi duk», baina, lokuzioa sortzez, laneko abereen artekoa da batez ere, esan nahiko balu bezala: «lurrean dantzan hasi duk, nagusiari losintxak egiten, ondoren zaldalea eman diezaion». Eta neronek askotan ikusia dut, laneko aberea, nola pastarako hala lorrerakoa, bere langitea bukatu eta, eguardian edo iluntzean, nagusiak pasta, koilaruna edo dena delako tresneria kendu ondoren zeinen pozik hasten den lurrean iraulka, bere gorputz estutu eta nekatua, lasatu, azkatu eta gozatu nahian. Astazaiak, mandazaiak, edo behialako zaldunak behin eta berriro beren begien bistan ikusitako egoera apropos horretantxe sortua behar du: «hara! zaldaleak irabazten art duk» lokuzioak, eta esana izan: segidan bazkarekin batera zaldale pittin bat jasoko du abereak lansaritzat, edo ez, segun eta lanean nola portatu den.

ruetan ere aditu izandu dut, berezko zentzurik galdu gabe. Konparazio batera, seme bihurria soinean dituen arropa guziak zikindurik etxeraten bazaito, hala hartuko du amak errixtan: «ze, zaldaleak irabazten ibili al haiz edo!?!». Neronek bost bider aditua, mutikotan. Hitz honek begien bistako etimologia du: *zald(ile)+alea*, nahiz gero abere guzietara hedatu.

Hitz honen beste senidea *ogale* hitza da, eta *zerripazka egosia* esan nahi du. Goizuetan hamaika aldiz aditua nago, *zerriri ogale* emate kontuak, eta seguru nago oraindik ere hitzetik hortzera erabiltzen dutela. R.M. Azkuek ere jasotzen ditu hitz honetatik sortutako adiera batzuk: «*Ogale = zerribazka egosia; Gizon ogalea = zerria, utzia, zabarra; Ogalekeria = lohikeria, lasaikeria; Ogaletu: lohitu, lokaztu*». Baina, hala eta guzi, ez ote litzake *ogale* hitza, *ogi+ale* uztartzetik sortua? Hala ematen du, baina, kontuz.

Leitzan, esate bateko, *ozalea* aditu dut maizenik, eta Inazio Mujikak ere halaxe jaso zuen Asteasuko Agirrerren Erakusdietetatik. Hitzak aldaera asko baititu bazterretan: *oale, ogale, ozal, ozala, ozale, pozale, bozale...* eta etimologia ilundu egiten digute; ez baitirudi guziek erro bera dutenik. Honatx zer dioen J.M. Iribarrenek *Vocabulario Navarro* liburuan, «*ambulo*» hitzaz: «*nombre vasco de la planta llamada «abozo» o «agozo» cuyas hojas secas mezclan al cocimiento que sirve de comida a los cerdos*». Ez dakit nondik sortuak diren Iribarrenek aipatzen dituen *abozo* edo *agozo* landare izenak, baina mereziko luke izen horiek euskal *ozal, ozala, ozale, pozale, bozale* hitzarekin lokarrik baluketen azterteak. Beste azterbidea, zaldalearen gisara, izan liteke, *ur(de) > or + ale*. Hala baltz ere, ni baino dotoreago jantzitako filologoaren esku uzten dut gaurko nere zerripazka.

Honako haurkanta xarmagarri honek jasotzen du ederki, aurrez esandako guzia:

*Martioxeren astoa dantzan dabilla gaxoa Bostetan zaldale Seietan erale arre dilin dale.*

Gurasoengandik ikasi nuen umetan, eta Goizuetan ezaguna da hagitz. Aita Donostiak ere badakar *Lazaroren astoa* izeneko kanta berbera, Goizuetan jasotakotzat. Haurkanta hau funtzioz, *Arri Arri mandoko* izenekoaren senide bixkia da, eta bidenabar, laneko abereen bizimodua adierazten du: goizeko bostetan zaldalea eman, seietan ura edanarazi, eta arre!

Baina *zaldaleak* trabazi lokuzioa, bestelako testuingu-

Ziria

• Motxorrozolo •

Komeriak

**U**STE BAINO ERREZAGOA DUGU FO-REN EMANALDI BAT LESCAR-EKO ikastetxea nirudikatzea. Anitza zen ikastetxe hartan antzerkia maite zuten. Sadar aldekoan aldiz, Dariorenak maite ala ez, komeriak hizkuntza bakarreko monologo bukaezina bere horretan mantentzeko. Astearteko emanaldiak luzamenduetan segitzen ote duten erakutsiko digu. Antzerkia ere akaberan, finalista berria dugu Madrileko sarietan, zorionak.

Jokin Muñoz  idazlea

# «Gure belaunaldiko asko bidean utzi ditu heroinak»

Jokin Muñoz idazleak *Joan zaretenean* bere bigarren literatur lana kaleratu berri du Alberdaniarekin. Euskal kontzientzia historiko nazionalistaren haustura gertatu zen belaunaldi galdu baten ezpalak idatzi ditu. Dena egiteko, deskubritzeko eta probatzeko zuten 60ko hamarkadaren hasieran sortutako berri dakar, nahiz eta eginahal horretan bidean asko gelditu ziren.

**I**KASTURTE HASIERAN ETA ORDUTE-giari egokitzen ari da egunotan Jokin Muñoz. *Hausturak* narrazio bilduma idatzi zuenetik lau urte igaro direnean, Iruñeko Miluze euskaltegian klaseek uzten dioten tartean hartaz eta honetaz solasean aritzeko beta hartu du.

■ **Argitaratu duzun lehen nobela da *Joan zaretenean*. Nola-koa izan da prozesua?**

Oso argi neukan nobela paseoa bat dela geografia intimo batean barna eta idazteko prozesua bera ere paseoa bat izatea nahi nuen. Orduan urte bateko paseoa egin dut, egunero, gaueko 9:00etatik 11:30ak arte, eta egun bakoitzean bazter ezberdinak zapaldu eta ikusi ditut.

■ **Nobelan zuen erreko belaunaldien herri eta gizarte kontzientzian hezitako belaunaldiaz ari zara behin eta berriro. Haren lekuko dela esan daiteke?**

Ez da belaunaldi oso baten ispilua. Ni urbanoa naiz, Donostian hezi naiz eta nire mundu ikuskera urbanoa da, eta, beharbada, giro urbanoan bizi izandako eta heziketa nazionalista izan duen belaunaldi baten ispilua eta gogoeta da. Ez da inondik inora berdina Donostian hezi izandako gazte batek ikusten duena eta Zegama, Azpeitia edo herri koxkor batean bizi izandakoa. Beraz, ez da belaunaldi oso baten ispilu biribila eta osoa, belaunaldi horretako gazte batzuenak baizik. Nik hasieratik gai bat izan dut buruan. Zer pisu izan duen gure buruan eta nola sufriarazi digun batzuei kontzientzia historikoa. Nola aurrerak lotu egin gaitu hein handi batean. Kontzientzia historikoa

beti pasatu izan da belaunaldi batetik bestera, baina gurean agian oso traumatikoa izan da eta nobelan kontatzen da nola giro estu horretan hezi izandako bat saiatu izan den bertatik ihes egiten eta ihes egite horretan frakasatu egin duen.

■ **Dena egiteko, deskubritzeko eta probatzeko garaiko semeak dira nobelakoak. Deus berririk deskubritu dute?**

Deskubritu genuen drogaren mundua, gu gara heroina dastatu eta sufritu genuen lehendabizikoak. Gure belaunaldiko asko eta asko bidean gelditu dira. Oso belaunaldi zigortua izan da eta, beharbada, probatu nahi hori uztartuta zegoen kanpoko ezagutzeko min horrekin. Ez ginen konformatzen egunero-koarekin, drogak probatu nahi genituen, eta, aldi berean, ezagutu nahi genuen

kanpokoak. Ezbaian jartzen genuen gurasoek eta aiton-amonek emandakoa eta beste mundu batera atera nahi genuen. Eutsi egiteko herri batean jaioak gara. Hor dago Gerra Zibilean pairatutakoa, Gernikako bonbardaketa, frankismo garaia. Sufritzeko eta borroka egiteko herri batean bizi izan gara eta horri lehenengo belaunaldikoez agian eutsi ahal izanen zioten, hurrengokoez ere bai baina gure belaunaldia nahiko nekatuta zegoen horretarako eta, beharbada, gure belaunaldian gertatu zen haustura hori aurrenekoak.

■ **Belaunaldi batetik besterako haustura ez ezik, zure aurreko lanetik nobela honetara haustura nabarmena egon da. Molde berrien bila zenbiltz?**

Jokin Muñoz Castejonen jaio zen, baina Donostian hazia eta hezia da.

LUIS AZANZA

Nik bi mundu erreferentzial izan ditut, nolabait, bi zor kitatzeko. Lehenengoa mundu mitikoa da. Nafarroako Erriberan jaio naiz baina sekulan ez naiz han bizi izan eta beharbada hura mitifikatu egin dut. Paisaia beragatik ere, oso erakargarria egin zait. Hango galsoroak, trenbideak eta ibaia literarioki oso erakargarriak iruditu izan zaizkit eta lehenengo nobelan unibertso hori islatu nahi nuen. Gero beste zor bat nuen nire Donostiako unibertso pertsonalarekin. Paseo bat egin nahi nuen nire Donostiako geografia kuttunean barrena eta nire txoko estimatuetan barrena.

Neurri handi batean 30etik gora gabiltzanon artean desengainu handia gertatu izan da. Gu, neurri handi batean, belaunaldi galdua gara. Ironiarako joera handia dugu, gertaera politikoak hartzerakoan eta federik ez dugu.

■ **Mamian ez ezik, idazkeran ere nabarmendu da haustura zure lan berrian. Horri ere erreparatu diozu?**

Bai. Ikusten nuen lehendabizi-

**sos laia**  
Jokin Muñoz Ebro ibaiak eta trenbideak bat egiten duten Castejon herrian jaio zen 1963an, amaberria, halaberrez, amonarengana joan baitzen erditzera. Dena den, Donostian hazi eta hezia da eta han ikasi zituen Irakasletza eta Euskal Filologia. Nafarroan bizitzen zortzi urte daramatza eta egun Iruñeko Miluze euskaltegian ari da irakasle.

Lehenago bizitzaren ertzak probatu nahirik edo, gehiago bizi izan du idatzi baino. Denborak lasaitasuna ekarri zion eta idazten hasi zen. Egun Nafarroako hiriburutik nahiko gertu dagoen Etxauri herrian bizi da eta, ahal izanez gero, han gelditu nahi luke.

Lehendabiziko haurra jaio eta egunetara argitaratu zuen *Hausturak* liburua eta, irekitako bideari jarraitu nahirik, *Joan zaretenean* hirugarren haurrarekin batera etorri da. Orain atsedendaldia hartu nahi du, eta idazten baino gehiago irakurketa arin egiten igaroko du heldu den urtea, behintzat. «Egunak 24 ordu ditu eta badago denbora gehiagorako», dio txantxetan.

ko nobelan oztopo bat zegoela, batek baino gehiagok esan zidan irakurtzeko zaila zela eta hori benetan triste da gurean. Arindu egin dut idazkera baina ez dut usate euskal idazleok horretan amore eman behar dugunik. Gaiak eskatzen baldin badu idazkera bat horri heldu egin behar zaio, beharbada alfertzen ari gara eta merkatuaren dinamikara makurtu egin gara. Dudik ez dago

gehien saltzen dela institutuetan eta euskaltegietan eta hor merkatu potentziala daukagu. Hori ondo dago baina banago hori arriskutsua izan daitekeela gure literaturaren kalitaterako. Uste dut estilo anorexiko samarra ari dela nagusitzen gurean eta, barrokismora lerratu gabe, jaso egin behar dugu idazteko forma.

→ Irene Arrizurieta

# Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1997ko urriaren 17a

## BEKARIO!

ZALDI ERDA



## Nafar Kronika

Kike Diez de Ulzurrun

### Konprenitzeko gaitza

«**B**ARKATU, JAUN-ANDREOK, ENE txintxurraren marranta eta ahots erlastua. Honen arrazoia ez datza inolaz ere gehigikerian, baizik eta udazken hasiera honetan, harat-honat, dabilen gaitzan». Hitzok Miguel Sanzen ezpainetatik atera ziren Corellako festak bukatu eta bihamonean, Iruñeko Gaiarre antzokian. Gure erkidegoa elebiduna denez, saio hartako aurkezpenak eta hitzaldiak oro, Corellako bi hizkuntza propiotan egin zituzten: gaztelera eta ingelera. Horrexegatik, Iruñeko Euskalerrira Irratikoak hasiak gara ingelera sakontzen, eta, badaezbada ere, alemaniareri lotu gatzazkio.

Bizkitartean, Diputazioburuari txintxurra sendatu eta erlatsik gabeko ahots ozena hasi zaio predikuan. Kordobillako berripaperak agindua eta gaia emanda: «zafatu mahaikideak», «HBkoak?». «Ez, beno, horiek ere, baina, oraiko honetan heldu pake itxuretan ari direnei». Ezin saihestu, jakina, aita pontekoaren manua, eta, bizkor ekin dio. Dena den, ez da bakarrik ari. Lehia sozialisten aldetik agertu zaio. Cristobalek uko egin dio bertze horien proposamenak eztabaidatzeari, baina Sanzek ez du atzean gelditu nahi eta bertze albisteburu bat eskaini nahi izan du: pakearen mahaian bozketa bidez hartuko dira erabakiak eta ez denek adostuta. CDNkoak, IUKoak eta EAKoak aipatzen ari dira litekeena dela mahaia haustea. Beraz, bada nola halako mugimendu banatzailea alde horretatik. Bertze aldean, ordea, ez da gisakorik somatzen. Irlandari buruzko gogoeta, mintzategi, mahai eta halakoen ideiak plazaratzen dituzte bai, eta poztuko da hain segur jende asko mahaia puskatuta ikusterakoan. Alabaina, aunitz jende sinesgogorra da, behin eta berriz, tiro eta leherkailu hotsak entzuten ari direlako. Jakin badakite, gainera, horixe dela itsasgarririk egokiena mahai-puskak berrituz biltzeko. Horrexegatik, zenbaitetan edota gehienetan ez daiteke konprenitu gertatzen ari dena.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

► **Tafalla:** Gabalzeketa tabernan reggae festa dago, gaur, 23:00etan.

► **Aitzain:** Artsaia aretoan **Burning** taldeak joku du, bihar, 23:30etan. Sarrera aurretik hartuz gero 1.000 pezeta kostako da eta han bertan 1.300 pezeta.

► **Iruñea:** **Extramundi** txirula goxoko laukoteak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, Pablo Sarasate Musika Kontserbatorioan.

► **Gares:** **Toy Dolls** taldeak kontzertua eskainiko du bihar, 23:00etan, Gares aretoan.

► **Zangoza:** Herriko txistularien taldeak kontzertua emanen du bihar, 20:00etan Kultur Etxean.

### ERAKUSKETAK

► **Iruñea:** Nafarroako Unibertsitate Publikoak Karlos III Etorbidean duen aretoan Juliantxo Irujoren lanak ikusteko parada dago. Erakusketa azaroaren 2ra arte egonen da irekita.

► **Burlata:** Txontxongilo erakusketa zabalduko da gaur Udaletxean eta hilaren 26ra arte egonen da zabalik. Erakusketan hamar txontxongilo mota ikusteko aukera dago.

► **Tafalla:** Kultur Etxean Nafarroako hainbat margolari eta eskultoreen lanak daude ikusteko etzizarre.

► **Iruñea:** Garcia Castañon aretoan **Pinto Coelho** bere azken pinturak eskegi ditu. Erakusketa datorren azaroaren 2ra arte dago zabalik.

► **Iruñea:** Castillo de Maya Kultur Zentruan **Benjamin Palenciaren** lanak ikusteko aukera dago datorren hilaren 23ra arte.

### BESTELAKOAK

► **Lizarr:** Udalako Emakumearen Zerbitzuak hiru ikastaro antolatu ditu: CD-rom eta internet, menopausia eta gaitasun sozialak eta adierazpena. Lehenengo ikastaroa menopausiarena izanen da eta irakatsiko da urriaren 21, 23, 28 eta 30an eta azaroaren 4an. Txanda CD-rom eta internetak hartuko dute urriaren 29,30 eta 31an eta azaroaren 5, 6, 7 eta 8an. Hirugarrena berriz, datorren hilean egingen da. Ikastaroe-tan parte hartu nahi duenak

54-82-37 telefonora dei dezake.

► **Altsasu:** Herriko **Kima** taldeak III. Kima Bertso Paper Lehiaketa deitu du. Partehartzaleak bi mailatan banatuko dira, A mailan lehiaketa irekia izanen da, luzera 8-12 bertsokoa izan behar du eta saria 70.000 pezetakoa da. B mailakoak Sakanan girotutako bertso-lanak aurkeztu behar dituzte eta aurrekoen luzera bera izan behar dute. Saria 70.000 pezetakoa da. Lanak Altsasuko Udaletxera igorri behar dira Kima Lehiaketa, Gartzia Ximenez, 26 31800 helbidera.

### ANTZERKIA

► **Iruñea:** **TEN** taldeak *Sekula guztirako bideak* lana antzez-

tuko bihar, 12:00etan Gayarre Antzokian.



► **Lizarr:** **Nake** taldeak *Comicos muy peligrosos* obra taularatu du gaur, 20:00etan Julian Romano Kontserbatorioan.

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



"Xamurki inestetikor heldu zen nequa haizearen eskuak itsuturik heldu zen estropozaka heldu zen ispiluetako odola".

ESTRUPAZAKA

BURUSOILTZEAREN AURKAKO  
**Biloalai**  
TXANPUA

Larrazkena

ez da azken laharra

